



Ezina ekinez egina

BARREN

TKIKOM



Eibarko La Salle Azitain

Arte

Batxilergoa

Giza eta Gizarte

Zientzietako

Batxilergoa



Zientzietako

Batxilergoa

**ZATOZ
GUREKIN**


Aurrematrikula zabalik maiatzaren 2tik 14ra



ICT-Industria eta Malla
ALTERNATIBA, elkar batera
Centro acreditado en el nivel
AVANZADO de maistría TIC

www.lasalleeeibar.com
emaila: azitain@lasalle.es
Tel: 943121698

Barren 25 urte



**BARRENen HARPIDEDUNEN ETA IRAKURLEEN
KONPROMISOA eta PARTE-HARTZEA behar dugu**

azaletik **BARREN**era ekimena antolatzeko

Maiatzak 25, ostirala

Kalegoen plazan

Ekitaldia antolatzen laguntzeko
Lan-ordutegia: 17:30-20:00


Maalako parkean

Kantu eta dantza-afariko lanetan parte hartzeko
Lan-ordutegia: 19:30-21:00

Izena emateko:


barren@elgoibarkoizarra.eus / 943 744 112
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626
(izena emateko azken eguna: maiatzak 18)

Eskerrik asko!



Ana Alberdi

Kazetaria



Bi minutu

minutu gehiago, mesedez, eguneroko momentu txikiak bizitzeko. Detaile txikietan arreta jartzeko, sentitzeko.

Negua bi minutuz arintzeko, baina jertse lodiak bi minutu beranduago erantzeko. Egur errearen usainaren barrena goxatzeko. Hosto lehorrez betetako korridorea zeharkatzeko. Bi, bi minutu gehiago, gitarraren konpainiaz abesti hori errepikatzeko, maite ditugunen emozioetan galtzeko. Zerbeza bat gehiago hartzeko. Ahots hori betirako geure azalean gordetzeko. Itzultzeko. Edo ihes egiteko.

Aparteko horma zuri horiek geure etorkizuneko txokoa beste bi minutuz amesteko. Argazki bildumari begiratu eta oroitzapenetan bidaiatzeko. Imajinazioari etenik ez hartzen uzteko. Bi minutu gehiago, arratsalde hartan stop sakatu eta begi ninietan tatuatuta geratu zitzaigun iluntze beroak gugandik alde ez egiteko. Itsasoaren joan etorria sentitzeko.

Bi minutu gehiago, mesedez, lagunarteko barreen sugarrari itzaltzeko baimenik ez emateko. Ardo txuri botilak sekretu gehiago airetazten uzteko. Azalari hitz egin dezan garrasi egiteko.

Bi minutu gehiago, besterik ez. Bizitzeko.

Bi minutu gehiago. Zenbatetan esan nahiz pentsatu ote dugu? "Bi minutu gehiago, mesedez". Bi minutu gehiago ohean egoteko. Kafe batek isurtzen duen ke eta berotasunaz goxatzeko. Pertsona berezi horren ondotik ez aldentzeko. Bi. Bi

"Bi minutu gehiago, mesedez, eguneroko momentu txikiak bizitzeko"



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldeggi **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, losu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpil-laga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ XXV. J.GURRUTXAGA KROSA

Elgoibar Ikastolaren izenean eskerak eman nahi dizkiegu joan den igande, apirilaren 23an, ospatutako XXV. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen lagundu zuten guztiei: BM, Alcorta Forging Group, Danobat Group, Lauko M.H., Ipar Spindle, Alyco, Besa, Elgoibarko Udala, Elgoibarko Udal Kirol Patronatua, Bacalaos Alkorta, Gaindu, Etxetar, Kutxabank, Laboral Kutxa, Egile, El Diario Vasco, Original, Sukia-Lazkano, ILS, Bronymec, Egotoki, Gare Radio Club, Biena Aroztegia, Elgoibarko Lagun Taldea, Laserlan, Industrias Banat eta Armario.

Bestalde, eskerrik beroenak parte-hartzaile guztiei ere.

Datorren urtean, apirilaren 7an ospatuko den, XXVI. J. Gurrutxaga Krosa antolatzen laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

J. Gurrutxaga Krosa Batzordea

▶ EZTABAIDATZEA ESKATZEN DUGU

Erraustegiaren aurkako mugimenduak sinadura bilketa bati ekin zion

duela denbora bat, Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren inguruko eztabaida tekniko eta publikoaren alde. Hemendik aste gutxira sinadura bilketa amaituko da. Horretarako maiatzaren 17an, Birziklatzearen Aldeko Nazioarteko Egunean, elkarretaratze bat egingo da Miramonen (Donostia), EIT-Bren egoitza aurrean (18:00etan), eztabaida eskatzeko. Era berean, lortutako sinadura guztiak han entregatuko dira. Azken aldiaren erraustegien inguruan argitaratu diren albisteak kezka areagotu besterik ez dute egin gizar-tean, eta ezinbesteko bihurtu da eztabaida teknikoa modu publikoan egitea, ondoren gizar-teak erabaki dezan proiektu polemiko honen egokitasunaz.

Kanpaina amaiera aste honetan jarri da abian sare sozialetan 6.389 sinadurarekin eta helburua 8.000ra iristea da. Animatu zaitzete, minutu erdi da sinatzea. Gizarteak eztabaida eskatzen du. Hau da sinadura uzteko helbidea: <https://www.change.org/p/debate-técnico-sobre-la-incineradora-en-eitb>

A.I.Z.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhitez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraokak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.




I. URTEURRENA

Emiliano Marcos de la Torre

2017ko maiatzaren 4an hil zen, 85 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, maiatzaren 5ean, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joan zinen, baina zure irribarrea, kantuak, umore ona eta alaitasuna gurekin geratu dira.

Etxekoak



Herriko etxebizitzaren fatxadak eraberritzeko 75.000 euro jarriko ditu Elgoibarko Udalak

Herriko fatxadak eraberritzeko diru-laguntzak emateko programa jarri du abian Elgoibarko Udalak. 75.000 euroekin elgoibartarrek etxebizitzak eraberritzeko erraztasunak izango dituzte, eta herriaren estetika hobetu eta ondare arkitektonikoa babestuko dira.

Elgoibarren martxan jartzen den mota honetako lehen deialdia da, eta aurrerantzean diru-laguntza hauekin jarraitzea da Udalak hartu duen konpromisoa.

Alde zaharreko fatxadak, Deba ibaira ematen dutenak, eta Altzola eta Olasogain (Sigma) auzoetako eraikinetako fatxadak eraberritzeko obrak sustatzeko asmoa dute. Beraz, gehienezko diru-laguntza gainerakoetakoa baino handiagoa izango da hiru kasu horietan.

Diru-laguntzaren zenbatekoa gastuaren % 25ekoa izango da. Emandako baimen bakoitzeko, gehienez, 3.000 eurokoa.

Eskaerak Elgoibarko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan

aurrez aurre edo Udalaren webguneko hiritarren atarian aurkeztu behar dira azaroaren 16a baino lehen.

Balkoi eta leihoak apaindu

Etxebizitzetako fatxadak berritzeaz gain, herriaren itxura edertzeko beste bide bat ere jarri du martxan Elgoibarko Udalak. Herriko balkoiak eta leihoak apaintzeko lehiaketa antolatatu du.

Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 15era bitarteko epea dute Herritarrentzako Arreta Bulegoan. Epaimahaikoek uztailan zehar ikusi eta baloratuko dituzte balkoiak eta leihoak, lore apainketa ederrenak saritzeko. Herriko ingurumen kalitatea eta itxura hobetu nahi dute lehiaketarekin, herrigune "atseginagoa eta ederragoa" egiteko. Balkoi edo leiho do toreenak 150 euroko bi bono jasoko ditu Txankakua elkarteko saltokietan gastatzeko.

Arlo soziosanitarioko Eurocom proiektuko 26 pertsona etorri dira Meka ikastetxera

Eurocom Smart Erasmus + proiektuko arlo soziosanitarioko 26 pertsona etorri dira Meka Lanbide Eskolara. Proiektu honen baitan Herbehereak, Finlandia, Alemania, Grezia eta Danimarkako jendea izan da Elgoibarren. Proiektuaren helburuak honakoak dira: ikasleek lan praktika egoki eta kalitatekoak izatea eta erreferentziako sare europarra antolatzea. Programako partaideek arloko enpresa kolaboratzaileak bisitatu dituzte, nola lan egiten duten ikusi ondoren, beraien ikasleak Euskal Herrira praktikak egitera bidaltzeko. Enpresen artean proiektuak sortzeko ere izan da bisita. Asteon, enpresetako behaketak egiteaz gain, esperientzia baloratu eta Gipuzkoako Foru Aldundia zein Donostia bisitatu dituzte.



Pintxo txapelketa antolatu du Mendaroko Udalak maiatzaren 5 eta 6rako

Mendaroko Arrats, Menditxo, Ormola, Chow, Uztargi, Lagun Betikoak, Luzaide, Toki Alai, Txirristaka eta Aitz Beltz tabernek hartuko dute parte maiatzaren 5ean eta 6an jokatu den pintxo txapelketan. 12:00etatik 15:00etara eta 19:00etatik 21:00etara izango da lehiaketako pintxoak dastatzeko aukera. Bi sari banatuko dituzte: epaimahai teknikoak pintxo onenari emango diona aurkezpena, zaporea, testura eta originaltasuna kontuan hartuz, eta herritarrek tabernetan betetako orrien bidez aukeratutakoa. Irabazleak txapela, garaikurra eta diploma jasoko ditu. Bestalde, pintxoak aukeratzeko parte hartzen duten herritarren artean 50 euroko bi bonu zozketatuko dituzte saria nagusia jaso duen tabernan gastatzeko.

Abian da enpresa industrial onena saritzeko TKgune fabrikazioa lehiaketa

Maiatzaren 15era arteko epea izango dute Araba, Bizkai eta Gipuzkoako 35 urtera arteko gazteek TKgune Fabrikazioa Gazteentzako Enpresa Industrialen bosgarren ideia lehiaketan lanak aurkezteko. Lehiaketak ekintzailatza sustatzea du helburu. Antolatzaile-



leen esanetan, izaera industrialeko ideiak izatea, eta batez ere garatzea, ez da erraza, baina konfiantza dute lehiaketak eman ditzakeen emaitzetan. Lehiaketa TKgune Fabrikazioa Berrikuntza eta Teknologia Transferentziazko Sarea osatzen duten Lanbide Heziketako Ikastetxeek (tartean IMH) antolatu dute Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Debegesaren laguntzarekin; eta, Rural Kutxaren eta hainbat enpresaren (DanobatGroup, Alcorta, Schaeffler..) babesarekin. Lehiaketaren oinarriak eta informazioa: www.imh.eus helbidean eskura daiteke.

Anbolo Eguna jai giroz jantzi zuten gazteek



Elgoibarko gazte kuadrillak elkartu zituen Anbolo Egunak zapatuan. Goizean Anbolo elizatik jaitsi zuten, eta Asier Lizarraldeko pregoia irakurri ostean abentura parkean gozatzeko aukera izan zuten, tirolinan, besteak beste. Herriko trikitalarien doinuek eraman zituzten Maalara gazteak eta 100 lagun izan ziren Maalan bazkaritan. Musikak eta jai giroak jantzi zuten gazteen ingurua arratsalde eta gauean. DJ Jonsan, Betisua txaranga, Nerabe, Little Martin Selektia eta DJ jotatxo aritu ziren. Bizitako giroa ikusita antolatzaileek jai errepikatze gogoia agertu dute.

Mendarotik pasatuko dira EuskArabenturako gazteak uztailaren 28an

16 eta 17 urte bitarteko 120 gazte euskaldunek (zazpi herrialdeetakoak zein diasporakoak) EuskArabentura espedizioa egingo dute uztailaren Euskal Herrian barrena oinez Done Jakue bideak jarraituz. Museo bisitak, hitzaldiak, tailerrak, kirol txapelketak, eztabaidak... izango dituzte. Euskara egunerokoan erabiltzen dutenak eta horretarako hainbeste aukera izan ez eta gehiago erabiltzeko gogoia dutenak dira taldean, eta beraien motibazio, talentu eta preferentziak ere askotarikoak dira: dantza, kirola, musika, zaldian ibiltzea... Debatik Markinarako etapa uztailaren 28an egingo dute eta Arnotik, Urkaregitik barrena joango direnez, Mendaroko parajeetatik ibiliko dira gazteak.

Goitibeherak egiteko tailerra maiatzeko lehen asteburuan

Elgoibarko Udalak goitibeherak egiteko tailerra eta entrenamendua antolatu ditu maiatzaren 5 eta 6rako. 15 urtetik gorako neska-mutilentzako izango da eta gazteen aisia eskaintza indartu, lokaletako gazteen arteko harremanak sustatu eta herrigunean gazteen presentzia bermatu nahi dute antolatzaileek. Tailerra 5ean izango da, 16:00etatik 20:00etara, Kalegoen plazan; eta entrenamendua 6an, arratsaldean, Albitzuri industrialdeko aldapan. Izena ematea doakoa da, eta azken eguna apirilaren 29a izango da helbide honetan: <https://labur.eus/goitibeherak>.

“Gizarte zibil ahaldundua da demokraziarako bermea”



▶ JON MIRENA LANDA

ZIGOR ZUZENBIDEAN
KATEDRADUNA

Zigor Zuzenbidean katedraduna da Jon Mirena Landa Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide fakultatean, eta era berean, EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria ere bada. Gorroto-delituak, terrorismo-delituak eta gizarteriarren aurkako delituak ditu ikerkuntza-lerro nagusi eta joan zen astean Elgoibarren izan zen, Elgoibarko Udalak ‘Bizikidetzaren’ izenburupean antolatutako zikloan. ‘Bizikidetzaren alde lanean: gaur egungo erronkak’ mahai inguruan parte hartu zuen Paul Rios Lokarriko koordinatzailearekin batera. Saio haren aurretik egindako elkarrizketa da hau ia oso-osoan, baina azken egunotako albiste zaparradaren ostean, azkeneko gertaeren inguruko bere iritziarekin osatu dugu gerora.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Egindako minagatik barkamena eskatu zuen ETAk joan zen astean, eta Foru Sozialak eta Harremanetarako Nazioarteko Taldeak jakinarazi berri dute topaketa bat egingo dutela datorren astean "gatazkaren konponbidea aitzinatzeko". Zer balorazio egiten duzu?

ETA desagertzea eta ETAk barkamena eskatzea berez gauza positiboak dira, giza eskubideen urraketak gutxitze aldera, bai eta etorkizunean halakorik berriro gerta ez dadin. Gauza guztien gainera hori ona den neurrian, aprobetxatu beharko genuke gure herrian berdiskidetzeari aurrera egin dezagun. ETArri egin dakioken kritika beti egon

daiteke zabalik, zuzengabeak diren atentatu eta delitu ugari egin dituelako, baina behin betiko desagertzea eta barkamena eskatu nahi izatea gauza positibotzat jo beharko genituzke, nahiz eta hitzetan asmatu ez izan.

♦ **ETA jardun osoan zebilenean giza eskubideen inguruan hitz egitea zailagoa zen beharbada gaur baino, baina orain ere... Zerk lotzen gaitu?**

Gertatu den guztiaren errelatoa egitea ez da erraza. Lehen, Estatuaren aldetiko estrategia kontraterroristak ikaragarriko presioa eragiten zuen. Izan ere, eragile politiko eta mediatiko askoren ustez, Estatuak egindako giza eskubideen urraketen inguruan hitz egitea terroristei laguntzea zen. Lehen, dena zen zuri ala beltz, eta polarizazio horren ondorioz, giza eskubideen kulturak nabarmen galdu zuen. Orain, baina, eragile gehiago dira egiazen bila ari direnak. Hala ere, orain ere nondik begiratzen den da kontua.

Jakina da indarkeria politikoak, motibazio politiko batekin egindakoak, urraketa larriak utzi dituela, bi adarretan: terrorismoaren lerroak egindakoak batetik, eta Estatuaren edo Estatuaren bueltan dauden eragileek egindakoak, bestetik. Baina, terrorismoaren indarkeriari erreparatzen badiogu, esan dezakegu ibilbide oso luzea egin dela, politiketan, zigor politiketan eta baita kaltea konpontzeko politiketan ere. Are, gehiegikeriak ere egin dira, politika horiek biktimei mesede egiteko baino gehiago "kontrainsurgentziarako" erabili direlako sarri. Aldiz, erreparatzen badiogu Estatuaren indarkeriari, gabeziak handiagoak dira, hor ez dagoelako egirik ere ez.

Egitateen gaiak lotzen gaitu, egia topatu arte ez baitugu jakingo zertaz ari garen ere. Egiak mahai gaineratu ahala, politikak atzera egingo du eta giza eskubideen kulturak bere legeak ezartzeko aukera izango du. Egia eta egia-osteko zurrumbiloan gaude harra-patuta.

♦ **Zertan dugu zailtasun handiena?**

Nik uste dut bi muturrak indarra galtzen ari direla gure herrian, eta gero eta jende gehiago dagoela familia politiko guztietan gehiegikeriak alde guztietan egon direla aitortzeko prest, eta gauzak orokortu orde, banan-banan aztertzearen alde. Baina, jakina, zailtasun handiena Estatuak zer egin duen indibidualizatzean daukagu. Horretarako ikaragarriko borroka daukagu, borroka juridiko handia barne. Maila juridikoan, saio batzuk egin dira Euskaditik –lege bat eta dekretu bat martxan jarri dira–, baina automatikoki errekurritu dituzte Madrildik. Estatuak gehiegikeriak egin ditu –Estatuak ere bai– eta urratze horiek Konstituziotik kanpo baleude bezala kontsideratu dira ikuspegi juridikotik. Amnesty Internationalek berak esana du tortura ia sistematikoa izan zela 70 eta 80ko hamarkaden hasieran, eta orduetik, sistematikoa izateari utzi badio ere, tortura beti egon dela eta tortura-kasuek ez direla inondik inora kasu isolatuak izan. Zoritxarrez, estatu demokratiko guztietan existitzen dira tortura-moldeak eta tortura kasuren batzuk, baina Espainian hori baino gehiago egon da.

Maila sozialean, txostenen bueltan gabiltza etengabe, eta esango nuke badagoela egia topatzeko egarri halako bat, baina ezina ere handia dela, Estatuak tresna propioak dituelako berak sortutako indarkeria estaltzeko.

“Alderdi politikoek gainera badago bizitza, demokrazia sendotzeko ezinbestekoa dena”

♦ **Kultura politikorako nahikoa oinarri badugula iruditzen zaizu?**

Dudarik gabe. Gizarte zibilak mo-

bilizatzeko grina handia izan du beti eta horrek esan nahi du kultura politikoa badugula. Baina gizarte zibil hori alderdi politikoetatik antolatu izan da, eta jakina, herrialde polarizatueta ohikoa da tartekoak ahaztea. Ez batean ez bestean dauden horiek sekula ez daude ondo ikusiak, eta bizi-garrenean komeni da kultura politikoaz gain kultura demokratikoa eta giza eskubideena garatzea, baita alderdi politikoaren inguruan ere. Jakina da erakunde instituzionalek lagundu behar dutela kultura demokratiko hori sustatzen, baina nik garbi daukat hori gizartetik irten behar dela. Adibide bat: Ingalaterran badute erakunde bat, 19. Artikulua izenekoa, adierazpen askatasunaz arduratzen dena. Gizarte zibiletik sortutako erakundea da, eta lan handia egiten ari da. Hain egin du lan handia Nazio Batuen Erakundeak ere eskatu izan diola laguntza edo aholkularitza zenbait kasutan. Badute, era berean, tortura gaietan espezializatutako talde bat ere, eta bai bata zein bestea ezin dira ulertu alderdi politiko bati lotuta.

Talde horiek badute autoritatea. Estatu espainiarrean eta Euskal Herrian zeinek dauka, baina, autoritatea bi gai horietan bultzatzaile lana egiteko? Tarteko hori piztu eta indartu behar dugu, eta bai, kultura politikoa izatea bada horretarako oinarri bat, baina iruditzen zait beste mezu bat zabaldu behar dugula: alderdi politikoek gainera badagoela bizitza, demokrazian sendotzeko ezinbestekoa dena.

♦ **Herritarrak ahaldundu eta boteretu behar ditugula, alegia.**

Nik ez dut ukatzen erakundeek euren lana egin behar dutenik, baina herria ahaldundu eta boteretu behar dugu. Memoriez ari garenean, askotan Barne Sailak edo Barne ministroek hitz egiten dute hemen egia buruz. Nola liteke, baina? Nola arduratuko da, bada, Barne Ministerioa egiaz? Erakundeek lidertza hartu behar dute kontu batzuetan, legegintza bultzatzean eta

abar, baina gizartea ere antolatuta behar da, kontrapisua egiteko. Gizarte zibil ahaldundua da demokraziarako bermea. Era berean, Justizia Administrazioak ere independentea izan behar du, bistakoa denez. Nolanahi ere, egia da gaur egungo gizarte zibila leku guztietan dela ahula. Informazio asko dugu, baina atomizatuta gaude. Galdu dira 70eko hamarkadako gizarte mugimenduak. Aldaketa bat egon da, eta ez dakit ez ote duen horrek boterearen kontrola indartu; ez dakit ez ote dituen gizarte zibilak antolatzeke eta mobilizatzeko zituen tresnak galdu.

♦ **Termino jakin batzuen inguruan ados jartzeko ere arazoak dauzagu, baina. Definizioetan dago arazoa?**

Terminoen inguruko borroka beti egon da. Ideologia bera ere terminologian oinarritu izan da beti, eta zer esanik ez gurean. Kontu honetan giza eskubideen kulturak ekarpen handia du egiteko, giza eskubideen bortxaketak zeintzuk diren definituta dauzkagulako munduan. Beraz, giza eskubideen urraketak zer diren eta biktimak zeintzuk diren argitzea erraza da nazioarteko giza eskubideen estandarretara jota, 70 urte badaramatzagulako esparru horretan definizioak fintzen. Bigarren Mundu Gerra ondorengo gauza on bat, -ona, eta hein berean, ahula-horixe izan zen.

♦ **Justizia, ona izango bada, neurriz erabili behar da. Nago, hala ere, terrorismoa izendapenean dena kabitzen dela gaur eta zigor zuzenbidera sarriegi jotzen dela.**

Bai. Terrorismoaren esparrua puztuz eta puztuz ari da, estatu demokratikoetan ere bai. Terrorismoaren zakuan terrorismoaren mailakoak ez diren hainbat jardura sartzeko afan edo presio handia dago. Terrorismoa antolatutako delitugintza mota bat da, larriena hain zuzen ere. Definizio argia du, baina delitu horri tipulak dituen beste azal gehitu zaizkio. Nazioarteko

kontalari bereziak Espainian izan direnetan ere sarri ohartarazi dute horretaz: Espainian politika batzuk gehiegizkoak direla. Garbi dago ezin dela terrorismoaren izenean disidentzia itotzen ahalegindu, askotan egi(te)n den bezala.

♦ **Eta beharbada, Espainian eta Euskal Herrian beste inon baino nabarmenagoa da hori?**

Beste zein herrialderekin alderatzen duzun da kontua. Europa mendebaldeko kulturekin alderatuz gero, bai, zailantzarik gabe. Hemen, Euskal Herrian, propio bertakoa izan den indarkeria izan dugunez, abusatu egin da politikaz ere, batez ere 2.000. urtetik aurrera. Orduetik izugarri aldatu da terrorismoaren kontrako zigor politika; txarrerako, bistan da. Zigorrak handitu zituzten, Espainiako Auzitegi Nazionalari zentralitate are handiagoa eman zioten, Alderdien legea onartu zuten... Hori dena gertatu da hemen, eta garbi dago hori ezohikoa dela European, baina aitortu behar da joera orokor bat badagoela terrorismoaren zakuan gero eta gauza gehiago sartzeko.

“Garbi dago ezin dela terrorismoaren izenean disidentzia itotzen ahalegindu, askotan egi(te)n den bezala”

♦ **Nazioarteari begira jartzen gara sarri. Nazioarteko zuzenbideak zertan lagundu diezaguke, eta nola?**

Ezin dugu kanpotik ikaragarritzeko justizia maila altua espero. Estrasburgoko Auzitegiak kontrolatu ditzake gai batzuk, baina ez denak. Zer espero dezakegun? Batzuetan arrazoa ematea. Eta, bai, nik ere ulertzen dut askok esatea hori ezer gutxi dela gure egoe-

ran, baina kontuz, ez dugu hori gutxietsi behar.

♦ **Bestera egingo dizut galdera orduan: zertarako baliatu behar dugu tarteka kanpotik datorkigun haize fresko hori?**

Guk gure gizarteetan erreakzionatu ahal izateko; presio politikoa egiteko. Injustiziaren kontrako alternatibak badirela esan ahal izateko, justiziaren parte bat badelako egia aldarrikatzea ere. Askotan egiak berak bakarrik ez gaitu asetzen, nahiko genukeelako erantzukizunak ere zehaztea. Hau da, Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainian torturak egon direla esatea ondo dago, baina guk torturatzaileak auzipetzea eta epaitzea nahi dugu. Baina oraindik ez dauzkagu horren tresna sofistikatuek, neurri handi batean estatuen artean adostasunik ez dagoelako horretarako.

Dena den, kanpoko indar hori baliatu beharko genuke presioa egiteko eta egia azaleratzeko. Europak zentzu moral politikoa lantzen lagundu diezaguke. Arrazoa baldin badugu eta nazioarteko giza eskubideen estandarrak gure alde badaude, europarren iritzia gure aldeko bihurtu dezakegu, eta horrek lagundu dezake indar korrelazioa aldatzen hemengo politikan. Nolanahi ere, kontu bat: arrazoa eman baino gehiago ere egin du hainbatetan Estrasburgok. Parot doktrinaz ezarri zuen epaia, adibidez, aintzat hartzekoa da. Patrot doktrinaren kasuan, doktrina hori gehiegia zela esaten genuenoi arrazoa ematez gain, doktrina horren pean zigorra luzatu zieten hainbat lagun libre uztera ere behartu zuelako Espainia. Hori orain hogeitazazko urte ezinezkoa izango zen European.

♦ **Bizikidetzaren aldeko lanean, zer da Altsasuko Koxka tabernan gertatu zenaren ondotik etorri den hau guztia?**

Injustizia galanta. Ez dakigu gazte talde horrek edo gazte horietako bakoitzak zer egin zuen, baina garbi dago, edozein solaskidek, zintzoa den edo-

zeinek, ezin duela hor terrorismo delitirik ikusi. Koxkan gertatutakoa terrorismoarekin lotu nahi horrek trabatu besterik ez du egiten bizikidetzaren aldeko ahalegin oro. Terrorismoaren kontzeptua desitxuratzeko muturreko ahalegina da hau. ETArekin lotzeko erabili duten loturak "motibazioarekin" du nonbait zerikusia: erasotzaileek Guardia Zibilaren aurkako gorrotoz jardun ei zuten, ETAk ziharduen bezala. Terrorismoa egoteko, baina, antolatutako taldeak egon behar du, eta bere jarduna helburu edo motibazio jakin batera zuzendu. Hori balego, lotura frogatu beharko litzateke gero pertsona batek egiten duenaren eta talde terroristaren artean, baina horretarako, inolaz ere ez luke nahikoa izan behar motibazioa partekatzeak. Eta gainera, ETAk aktibo izateari laga ziola kontuan hartuta, zein da hemen talde terrorista? Eskarmentu bat eman nahi zaie gazteei, Guardia Zibilaren kontra egoteagatik. Ez dago besterik. Altsasukoak ez dauka ez hanka ez bururik.

♦ **Espetxe politika ere konfrontazio ideologikorako tresna izan da edo da. Frantzia hasi da presoak gerturatzan, banan-banan. Estatu espainiarrean giroa beste bat da. Nola baloratzen dituzu gai honetan eman diren pausoak?**

Indibidualizatzearena bide egokia da. Bloke politikak amaitu behar dira. Presoak ez dira bloke bat. Pertsonak dira, eta blokean hartu beharrean, dituzten delituen arabera politikak egin behar da haiekin, ez delako gauza bera delitu larri bat egitea edo apologia delitua egitea. Baina presoen gaia desblokeatzeko, espetxe politika aldatu behar da, eta horretarako borondatea behar da. Ez da nazioarteko estandarren kontua, horiek argi diotelako zigorrak delituen arabera izan behar direla. Presoei tratamendu politikoa ematen zaie, baina, eta delitu bera egin duen beste herritar bati baino gehiago eskatzen zaie: barkamena eskatzea, erantzukizun zibila or-

daintzea, justizia administrazioarekin elkarlanean jardutea... Barne Ministerioarentzat ETA 2011n zen bera da gaur, eta hori ez da egia. Geldi dago, eta ezin da jardun geldi ez balego bezala. Hori, baina, epailetza sendo batek zuzendu beharko luke, eta gaur, justizia administrazioa ez da izan beharko lukeen bezain independentea eta sendoa.

"Altsasun gertatutakoa terrorismoarekin lotu nahiak trabatu besterik ez du egiten bizikidetzaren aldeko ahalegin oro"

♦ **Itxuraz inork gutxik sinisten du dagoeneko justizian, eta alderdi politikoekin gaineko konfiantza ere dezente apaldu da. Alderdien kasuan, nor berean gogortuta daudela ere ematen du. Zer dago alderdien esku?**

Lehenengoari buruz esango dizut erroka handia dela, bai. Espainian trantsizioa egin zenean, justizia administrazioa apenas aldatu zen, eta diktaduratik demokraziarako saltoa egin zuen justiziak, baina iraganeko inertzia askorekin. Asko dago egiteko justiziarren benetako independentzia lortzeko, baina horretarako borondate politikoa falta da. Horregatik oso garrantzitsua da nazioarteko begiraleen lana. Kontalari bereziak ez dira edozein pertsona: hautaketa-moduarengatik eta lan egiteko protokoloengatik esan dezakegu ez dutela interes ezkuturik. Sinesgarritasuna dute, eta haiek lagundu dezakete egia bistaratzan.

Alderdiak nor berea sinetsita ari direla diozu. Baliteke, baina alderdiak gu gara, ez dezagun ahaztu! Nola konpontzen ditugu guk gure arazoak familietan-eta? Alderdi politikoak gure

kultura politikoaren isla dira. Onena litzateke guk arrazionaltasun handiagoz jokatzeko eskatzea gure ordezkari direnei. Arazo larriak konplexuak dira beti, baina politikan, sinpletzeko joera handiegia dago, eta dena zuri-beltz ikustea oso arriskutsua da. Zenbat eta kontzienteago izan horretaz, orduan eta gertuago egongo gara gizarte justuagoa, sendoagoa eta demokratikagoa lortzeki. Denon erantzukizuna da. Nik neuk ez dut uste alderdi politikoek bereziki txarto jokatzen dutenik horretan.

♦ **Zeintzuk dira, bada, bermeak gertatu den guztia berriro gertatu ez dadin?**

Justizia administrazio normala dagoen lekutan ez dago horretaz hitz egin beharrik. Iraganeko giza eskubiak urraketa sistematiko larriak gertatu badira, neurriak hartu behar dira, eta Nazio Batuen Erakundeak zehaztuta dituzten estandar batzuk. Adibidez: frogatu bada tortura sistematikoa izan dela, lehenengo eta behin argitu beharko da zein motakoa izan den, eta gero, Estatuak aitortu beharko du egon dela eta horren kontrako neurriak hartu beharko ditu.

Aitortza gauza handia da kalte-errepaziorako eta aurrerapauso handia gertatutakoa berriro gertatu ez dadin. Aldaketa instituzionalak etorri behar dira. Torturaren kontrako bermeak, adibidez, nabarmen hobetu behar dira.

♦ **Torturatzen dela izango da behar-bada aitortzea gehien kostatuko zaiena?**

Dudarik gabe.

♦ **Buka dezagun positiboan.**

Ingeniaritza sozialarekin zerikusia duten gauzak konplexuak dira. Hau ez da Walt Disneyren film bat. Gizartearen konplexutasunean aldatetakoak egin dira, baina ezin da hau egun batetik bestera zuzendu. Kontzientzia lan egin behar dugu, denok dugulako gure erantzukizuna, eta lanean jarraitu behar dugu sinistuta badugula hobetzeko potentziala.



Maria Luisa Lejardi Ondarra

2018ko apirilaren 21ean hil zen, 65 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Maria Luisa Lejardi Ondarra

2018ko apirilaren 21ean hil zen, 65 urte zituela.

***Zure irribarre goxoa eta alaitasuna
betirako izango dira gure artean.***

Mikelen kuadrillakoen partez.



Ceferino Gonzalez Velasco

2018ko apirilaren 23an hil zen, 80 urte zituela.

Zure oroimena beti izango da gure bihotzetan.

Gonzalez-Barrutia sendia



Ceferino Gonzalez Velasco

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

2018ko apirilaren 23an hil zen, 80 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Autoak gaizki aparkatuta: "Urazandi auzoan autoak gaizki aparkatzen dituzte, askotan baita zebrabide gainean ere oinezkoen pasabidea oztopatuz. Udaltzainak handik pasatu arren ez dute isunik jartzen. Horren aurrean neurriak hartzea eskatzen dut". Udaltzaingotik esan digute herritarrek kexak BARRENERA bidaltzen dituzten bezala zuzenean Udaltzaingora (udaltzaingoa@elgoibar.eus) bidaltzeko aukera badutela eta eskertuko luketela hala egingo balute.



Pilarreko aparkalekua: "Garai batean Pilar ikastetxea zegoen tokia txukundu, aparkatzeko egokitu, margotu... zutela pasatu da denbora. Orain, ordea, gero eta baldintza okerragoetan dago. Zuloak handitzen ari dira eta euria egiten duen egunetan putzuak sortzeaz gain, harri txintxarrak ere erortzen dira. Beraz, ea gutxienez itxura mantentzeko zerbait egiten duten. Izan ere, bertan aparkatzen dugunok arriskua daukagu, besteak beste maniobratzeko". Hirigintza zinegotziak adierazi digu mantentze-lanak egin izan direla eta egingo dituztela.



Aitzolako etxe zaharrak: "Altzolan, Mendaroko norabidean, eskumatarara, bi etxe daude errepide aldamenean oso egoera txarrean. Entzun zuen Udalak prezio sinboliko batean saldu zituela etxe horiek eta gerora okupatuta ere egon zirela. Pixkanaka zatika erortzen ari dira azken urteotan, eta zahartu ahala, are gehiago. Jakin nahi nuke ea etxe horiekin zerbait egiteko asmorik ba ote dagoen". Udaleko Hirigintza Saitetik adierazi digute etxe horiek jabetza pribatukoak direla eta arriskua nabaritu izan dutenean agindu dietela arrisku hori kentzeko neurriak hartzeko.



II. URTEURRENA

Manuel Rey Quiroga

1937-2016

***Denbora oso azkar doa,
baina hutsunea betirako da.***

Zure familia osoak



“Sekula ez dugu amore ematen. Oso borrokalariak gara”

Espainiako Eskubaloi Txapelketa Elgoibarren jokatuko dute jubenil nesken mailako denboraldiko zortzi talde onenek. Gaztela eta Leon, Katalunia, Madril, Galizia, Valentzia eta Andaluziako taldeen aurka lehiatuko da etxeko taldea, Tecnifuelle, maiatzaren 2tik 6ra bitartean. Eskubaloi zaleak asetzeko moduko festa izango da Olaizaga kiroldegian. Tecnifuelle taldeko entrenatzaile Igor Lizarralderekin eta taldeko hiru kapitaineekin (June Loidi, Kristiña Fidalgo eta Irene Makazaga) batu da BARREN, denboraldiari errepasoa egiteko eta Zortziko Finalerako dituzten sentazioen berri izateko.

- ASIER ORBEA -



▶ IGOR LIZARRALDE TECNIFUELLEKO ENTRENATZAILEA

♦ **Elgoibarren jokatu den Espainiako Eskubaloi Txapelketan lehiatuko diren zortzi taldeetatik Tecnifuelle da herri txikienetik datorrena, alde handiarekin.**

Sanlo moduko klub batentzat sekulakoa da bere talde bat horrelako txapelketa baterako sailkatzea, eta beste horrenbeste txapelketa antolatzeak aukera izatea. Sanloko talde bat Espainiako Txapelketako azken faseko sailkatu den laugarren aldia da. Kadeteetako bi taldek lortu zuten aurrez eta jubenil nesken beste talde batek ere jokatu zuen, hura ere Elgoibarren.

♦ **Talde asko entrenatu dituzu Sanlon. Zer dauka berezia Tecnifuellek?**

Gogoia, lana eta talde izaera. Oso ondo hartu dute elkar lehen urteko eta bigarren urteko jokalariek eta bat eginda egon da taldea. Denboraldi luzeetan normalak diren txakalaldiren bat edo beste izan arren, sasoi betean ailegatu ginen unerik garrantzitsuenara, bai fisikoki eta bai mentalki. Gogo biziz ailegatu ginen Zarautzen jokatu genuen Euskadiko Txapelketako Lauko Finalera. Eta Burlatara Espainiako Txapelketa jokatzera joan aurretik ere, ziur naiz taldekide guztiek pentsatzen zutela azken faseko sailkatzeak aukerak genituela. Funtsezkoa da hori. Egin dezakezula sinetsi behar da egiteko. Azken jardunaldira aukerekin hel-

tzeara zen gure helburua eta lortu genuen. Bagenekien Malkaitz etxeko taldea izango genuela aurkari gogorrena sailkatzea lortzeko borrokan. Partida gogorra jokatu genuen, eta detaile txikiak funtsezkoak izan ziren, euren piboteak huts egindako hiru jaurtiketa -normalean sartzen diren horietakoak- esaterako. Partida osoan lehiakorrak izan ginen, eta markagailuan berdinduta amaitu genuen.

♦ **Burlatako Lauko Finala irabazita, Espainiako Zortziko Finalerako sailkatzea lortu zenuen, azken urteetan zenuen ametsa, alegia.**

Bai. Sekulako emozio eztanda bizi izan genuen. Negarrez hasi nintzen ni eta hainbat jokalarik ere bai. Neska hauek urtero sailkatu dira Espainiako Txapelketaren bigarren fasea jokatzeko, baina azken faseko sailkatzeak atarian gelditu izan dira. Aurten izarrak lerrotatu dira, eta lortu dugu zortzi talde onenen artean egotea. Lorpen itzela.

♦ **Ibilbide oparoa izaten ari da jokalaritalde hau.**

Bai. Lorea Gabilondori hartu nion erreleboa, eta bi urte daramatzat taldea entrenatzen, Juanma Lopezen laguntzaz. Euskadin onenen artean lehiatu dira azken lau urteetan, eta Espainian ere maila ona eman dute beti.

♦ **Zein da taldearen jokatzeko era?**

Defentsa sendoa da gure armarik garrantzitsuenak. Ondo defendatzen dugunean erasoan askoz hobeto eta lasaiago jokatzen dugu. Erasoan asmatu ez arren,

badakigu defentsan konpon ditzakegula erasoan izan ditzakegun arazoak. Gainera, eskarmentu handiagoko taldea gara orain, une txarretan sufritzen ikasi dugulako.

♦ **Defentsa on batek sakrifizioa eskatzen du. Erasoan aritzea dibertigarriagoa da.**

Bai, golak sartzeara da politena eta defentsako lana ezkutuan gelditzen da askotan, baina talde honek aspaldi barneratu zuen defentsan dagoela gakoa. Beti esaten diet erasoak partidak irabazten dituela, baina defentsa onik gabe ezin daitekeela txapelketarik irabazi. Ez badigute gol bat sartzen guk bat sartzearekin nahikoa da. Defendatzea erasotzea baino gehiago gustatzen zaien jokalariek ditugu, eta hori urtetan egindako lanaren ondorioetako bat da.

♦ **Zertan daukate hobetu beharra?**

Erasoaldietan baloia azkarrago mugitu behar dugu, jokoaren erritmoa bizitu, gola sartzeko ahalik eta aukera garbiena sortu arte. Horretarako garrantzitsua da jokalarik bakoitzak dagokion lana betetzea, eta defentsan elkar laguntzea da gakoa.

♦ **Ezagutzen dituzue Elgoibarrera etorriko diren aurkariak?**

Bai, bideoen bitartez. Granollersek talde sendoa dauka eta Sanse ezagutzen dugu, iaz Espainiako txapelkunorde izan baitziren madrildarrak. Nire ardurak bakarrik, baina, guk egindako lanarekin gus-tura gelditzea da, gure onena ematea. Hala eta guztiz, aurkariak gu baino hobea bada, zoriondu eta kitto!



▶ JUNE LOIDI, IRENE MAKAZAGA eta KRISTIÑA FIDALGO KAPITAINAK

◆ Nolakoa izaten ari da denboraldia, Tecnifuelleko hiru kapitainen ikuspegi-tik?

Hasiera oso ona eduki genuen arren, talde sentimendua falta zitzaigula igarri genuen azaroan izan genuen joko beheraldia batean. Irabazi beharreko partidak galdu genituen. Gure artean beti konpondu izan gara ondo, baina jokoan elkar ulertze hori ez zegoela ikusi genuen. Elkarrekin berba egin eta kantxan falta zitzaigun konfiantza berreskuratu genuen. Berehala nabaritu zen jokoan, eta emaitzetan. Erreterian jokatu genuen partida bat izan zen inflexio puntua. Galduz gero, zaila geneukan Euskadiko Txapelketarako sailkatzea. Nola edo hala partida hura irabazi behar genuela esan genion elkarri eta irabazi ostean gora egin zuen taldeak.

◆ Nagusitasunez irabazi zenuten Euskadiko Txapelketa Zarautzen.

Oso motibatuta ailegatu ginen Euskadiko Txapelketako Lauko Finalera, konfiantzaz gainezka. Sekula baino gehiago gozatu genuen eskubaloiaz. Gainera, taldekide guztiok eduki genuen jokatzeko eta taldeko parte sentitzeko aukera. Eta Zarautzen irabazi izana pastelari ginda jartzea modukoa izan zen, Zarauzko eta Elgoibarko eskubalo taldeen artean beti egon baita pikea, ia adin tarte guztietan jokatu ditugulako elkarren aurkako partida

garrantzitsuak. Oraingoan, etxean jokatuko bagenu moduan sentitu ginen. Harmailetara begiratu eta erdiak baino gehiago elgoibartarrak ziren, barren! Zarautzen jokatu ditugun beste partida bero batzuetan izan dugu sentsazioa, harmailetak giroak irentsi behar gintuen sentsazio hori, ez genuen sumatu oraingoan. Taldekide gehienok bigarren urtekoak gara, eta bagenekien elkarrekin horrenbeste urtean jokatu eta gero gure azken txapelketa izan zitekeela. Aurten 'bai ala bai' izan behar zela esan genion elkarri.

◆ Burlatako Lauko Finala etorri zen gero, Espainiako Txapelketako bigarren fasea.

Azken lau urteetan jokatu ditugu Euskadiko Txapelketak eta Espainiako Txapelketako sektoreak. Talde gutxiak lortu dute hori. Baina... 'Top 8'an sartzeko ateetan geratzea amorragarria izan da. Onenekin lehiatzeko gai ginela erakutsi arren, azken bultzada bat falta zitzaigun. Iaz bi goleko aldeagatik ez genuen irabazi Euskadiko Txapelketa, Elgoibarren jokatu genuen fasean. Eta gero, Espainiako Txapelketako bigarren fasean gol bateagatik ez ginen azken faseko sailkatu. Helburua hatzekin ukitzeko zorian egon eta esku hutsik gelditzea gogorra da. Aurten ez zigula ihes egingo esan genion elkarri Burlatara joan aurretik. Gainera, jokatu genuen Espainiako lehen sektorea ere Burlatan jo-

katu genuen kadeteak ginela, eta zikloa itxi nahi genuen, Zortziko Finalerako sailkapena lortuta. Lehen bi partidak biribilak irten zitzaizkigun eta gozatu egin genuen. Fasea hasi aurretik aurrekusi genuen moduan, Malkaitzen aurkako azken partida izan zen erabakigarria. Hamabosgarren minuturako bost goleko alde lortu arren, alde horiek ez direla behin betikoak ikasi dugu. Jokalari gogorak eta borrokalariak dira nafarrak eta bagenekien garesti salduko zutela porrota. Gauzak zail jarri zitzaizkiguten bigarren zatian. Lehen burua galtzen genuen berdindutako neurketan. Kanpotik ere hala esaten ziguten, umeak bagina moduan jokatzen genituela partida berdinduak. Golak azkar sartzeko presa sartzan zitzaigun. Horrelako une kritikoetan hobeto jokatzen dugu orain, joko taktikoa eginez; patxada eta heldutasun gehiagorekin.

◆ Etxean zein kanpoan, beti dituzue zaileak alboan.

Izugarrria da zaleena, txalogarria. Burlataraino 30 bat lagunek egin zuen joan-etorria, hiru egunetan. Batzuek lanean jai eskatuta. Gurasoak beti ditugu hor, zale finak dira, eta eskertzen diegu, baina gurasoak dira. Gu baino bi urte gazteagoak diren Sanloko jokalariak ere joan ziren gu ikustera, ordubeteko bidaia eginda, zapatu arratsalde batean.

◆ Zer sentsazio dituzue Elgoibarren jo-



katuko duzen Zortziko Finalerako?

Guztiok gaude oso urduri. Gutako sakontzat eskubaloian gabiltzanetik lortu dezakegun helburu potoloena da, eta etxean lehiatu eta eskuratzeko aukera izango dugu. Honaino iristea sari handia da guretzat. Kadeteetan hasi ginenetik 'Top 8'an sartzea izan da gure helburuetako bat, eta hor gaude! Klub txiki bat da Sanlo besteekin alderatuta, eta meritu handia du. Elgoibarrera etorriko diren zenbait talde, Granollers edo Sanse adibidez, ia urtero sailkatzen zirela ikusten genuen, eta aukera hori urrun ikusten genuen guretzako. Eskubaloia hobby bat da guretzako. Ikasketek dute lehentasuna eta gero dator eskubaloia. Aldiz, eskubaloitari lehentasuna ematen dioten jokalariek daude hona etorriko diren zenbait taldeetan.

◆ Bistan da zuentzat ez dagoela presio-rik etxean jokatzegatik.

Azken erabakia klubaren esku dagoen arren, guk Elgoibarren jokatzeko nahi genuen. Jokalari batzuk Batxilergoko bigarren mailan daude, eta azterketak dituzte. Ez da berdina etxean ikastea ala Madrilera hotel batean. Batzuek etorkizuna dute jokoan, nota jakin bat gaintu behar baitute unibertsitatean sartzeko. Etxean jokatzeari esker, aurreneko Lauko Finala gaintutako dugula uste dugu. 'Goazen disfrutatzeraz' esan genuen hasieran,

baina lehiatzeko gogoz gaude orain. Gure multzoan Zamora, Carballal eta Sanseren aurka jokatu dugu, eta madrildarrak dira gure multzoko gogorrenak. Gure belaunaldian infantiletan eta kadeteetan Espainiako txapelak izan dira, eta txapelakorde izaz. Ohituta daude era honetako erronketara eta Espainiako selekzioan diharduten jokalariek bat baino gehiago dute. Beste multzoan arituko diren taldeek zumaiarren eta zarauztarren aurka jokatu dute, eta haien parean ibili direla ikusi dugu. Alegia, haiei irabaztea ez da lortu ezineko helburu. Egindako lanak emaitzak eman dituela konturatu gara, eta horretan jarraituko dugu. *Ezina ekinez egina* da gure leloa eta halaxe egin dugu, bultzeta eta bultzeta gure helburua lortu arte. Jokalari euskaldunok oldarkor opea dugu kanpoan. Kastako jokalaritzat gauzkate.

◆ Nondik dator kamisetetara ere eraman duzun esaldi hori: 'Ezina ekinez egina'?

Sekula ez dugula amorarik ematen da gure ezaugarri nagusia. Oso borrokalaria gara. Gure leloa bihurtu da *Ezina ekinez egina*, hala erakutsi dugulako azken lau urteetan. Bai txapelketetan eta baita entrenamenduetan ere, senior taldearen aurkako entrenamenduetan ere oso leihakorrak izan garelako. Aurten lortu ditugun emaitza onak gu baino lehenago Sanlon

egon diren belaunaldiei ere zor dizkiegu. Transmisio bat dago, guk zaharragoengandik ikasten dugu eta gazteagoek guregandik, eta zenbat eta lorpen handiagoak lortu bideak urratzen ditugu hurrengoentzat. Lauko senior taldea ere aipatu nahi dugu. Eurekin egin ditugun entrenamenduetan, partida garrantzitsuen aurretik batez ere, guri eman digute protagonismoa, euren lehia alde batera lagata. Eskertzekoa da.

◆ Zein izan da entrenatzailearen garrantzia Tecnifueleren lorpenetan?

Igor izan da eduki dugun entrenatzaile bereziena, gutako askok laguntzat ere badaukagulako. Jokalariok askatasun esparru bat lagatzen digu, kantxan gu geu izan gaitzen. Entrenatzaileak agintzen du, bai, baina dena ez dago zehaztuta, gure erabakiak hartzeko askatasuna dugu, eta berak esango digu, eta behin eta berriz errepikatuko digu gero, zertan huts egin dugun eta nola zuzendu. Konfiantza handia eman digu. Entrenamenduetatik kanpo daukagun harremana ere primerakoa da. Euskadiko txapelak izan ostean bere txabolara gonbidatu gintuen. 17-18 urteko hamazortzi neska "isil-isil eta lasai" batzeko gogoia behar da (kar, kar). Harreman oso ona dugu berarekin eta edozein arazo kontsultatzen diogu. Beti daki zer esan eta nola lagundu.

Mendaroko Haurreskola

Garagartza, 5
943 755 219



Haurreskolak

www.haurreskolak.net

Matrikulazio epea zabalik
apirilaren 30etik maiatzaren 11ra



ENJOY SUMMER Udalekuak Elgoibarren

INGELESEKO
FRANTSESEKO
ALEMANEKO

Ekainaren 25etik uztailaren 27ra.

Goizez, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

PREZIOA
3 aste: 188 €
4 aste: 250 €
5 aste: 300 €

IZEN EMATEKO EPEA
Apirilaren 23tik
ekainaren 1era arte.

ADINA: 2013-2006 urte artean (biak barne) jaiotakoak.

TALDEAK: 8-12 lagun talde bakoitzean.



Antolatzailea:

ILS - ELGOIBAR Gipuzkoa

E-mail: ils@ils.es

T. 943 744 040

www.ils.es

INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



FABRIKAZIOAREN
ZENTRO AURRERATUA
CENTRO AVANZADO
DE FABRICACIÓN

'Atsoak dantzan' kale antzezlanak ikusi ahal izango da maiatzaren 5ean Mendaroko plazan



Kale antzerkia ikusteko aukera izango dute maiatzaren 5ean, 18:00etan, Mendaroko plazara gerturatzen direnek. Pikor antzerki konpainiako Miriam K. Martxante eta Leire Ucha aktoreek *Atsoak dantzan* antzezlanean zahar-etxetik ihes egin eta ustez desagertuta dauden adineko bi emakumeren papera jokatu dute. Egoitzako zaintzaileak beraien bila ibili arren, adineko emakumeek oraindik egiteko asmotan diren hainbat kontu eta amets betetzeko ordua iritsi direlakoan daude. Itxuraz makalak diruditen arren, zahar-etxeko arduradunek herrian jarriko dituzten karteak arriskutsuak izan daitezkeela esango dute. Hala erakutsiko dute gero, arriskua ez baina nahasmena sortuko baitute beren adinerako pentsaezinak diren balentriak erakutsiz, ikusleekin bat eginez eta dantzara ere eramango dituzte. Mundua konkistatzeko prest dauden adinekoei egindako omenaldia da antzezlanak.

Maiatzaren 13an emango dute Aiastiako 'Herri txiki, infernu handi'

Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleen sorleketan grabatu dituzte *Herri Txiki, infernu handi* saioko opor aurreko azken bi programak: Aiastian eta Billabonan. Apirilaren 17an egin zituzten elkarrizketen grabazioak Aiastia auzoan eta apirilaren 26an grabatu zuten aurrez aurreko saioa Murkaikupe frontoian. Zuhaitz Gurrutxagak aurreratu du saio berezia izango dela. Besteak beste, Zuhaitzen gurasoak elkarrizketatu dituzte Aiastian, Pagadik ama eta Zuhaitzek aita. Horrez gain, auzotar gehiago ere irtengo dira. Besteak beste 36ko Gerran Zirardamendin izan ziren borrokak izan zituen hizpide Ziarda-Txiki baserriko Pakita Berredorekin Zuhaitzek berak. Auzolanaz ere aritu ziren beste hainbat aiastiarrekin. Euskal Telebistak maiatzaren 13an, 22:00etan, emango du Aiastiar buruzko saio berezia.

Euskarak Europako ama hizkuntzan duen tokia izango da hizpide maiatzaren 4an, Elgoibarko Kultur Etxean, eta 5ean, Aubixan

Euskeraren Jatorria Elkarteak antolatuta Euskararen Jatorriaren 12. biltzarra egingo dute maiatzaren 5ean Elgoibarko Aubixa baserrian *Euskerak Europako ama hizkuntzan* izenburupean. Biltzar horren osagarri, bezperan, maiatzaren 4an, doako hitzaldi irekia izango da 16:15etik 20:00etara Kultur Etxean. Angus Hunck ikertzaile britaniarra eta Bernat Mira toponimia aztertzaile valentziarra arituko dira. Hunckek euskararen aztarna pan-europearra izango du hizpide. Alacant inguruko toponimia ikertzen hasi zen gero Mira Espainia osokora eta Europakora zabalduz. Bere ustez, arabierari garrantzia handiegia eman zaio, toponimian iberieraren presentzia (euskerarekin lotzen du) luze-zabala delako. Izen-ematea 45 euro da, bazkaria eta gidaliburua barne (langabetuek eta ikasleek 30 euro). Informazio gehiago www.euskararenjatorria.net webgunean jaso daiteke.

Galizako Letren urteroko jaia ospatuko dute maiatzaren 11, 12 eta 13an

Urteroko ohiturari jarraituz Elgoibarko Galiza etxeak antolatutako jaia izango da maiatzaren 11tik 13ra bitartean Maalan. Inaugurazio ekitaldia agintariekin egingo dute 19:30ean, Maria Victoria Morenoren omenez, eta ondoren, Galiziako muskuiluen dastaketa izango da doan. Zapatuan Santurtziko Galiza Etxeko eta Haritz Dantza Taldeko dantzariak ikuskizuna eskainiko dute. Barixakua eta zapatu gauean Tsunami orkestrak giroa du plaza. Hiru egunetan Galizako produktu tipikoak dastatu ahal izango dira Maalan, olagarroa eta okela txigortua besteak beste.

Hiru filmetako sekuentziak herriko erakusleihatara eramango dituzte Taupadako antzezleek maiatzaren 5ean

Taupada antzerki taldeak *Zelukristaloidiak* jardunaldia antolatu du maiatzaren 5eko gauerako, 40. urteurreneko ekitaldien barruan. Izenburuak azaltzen duen gisan dendetako filmek eta erakusleihatok bat egin eta antzerkia jende artera zabaltzea da egitasmo honen helburua. Horretarako, hiru filmetako sekuentziak aukeratu dituzte eta musika eta argiarekin lagunduta emango dituzte. Sekuentzia bakoitzaren bi saio ikusi ahal izango dituzte herritarrek. Edurne Lasa eta Joxemari Larrañaga zuzendari eta teknikariaren esanetara arituko dira antzezleak.

San Frantzisko kaleko 30. zenbakian, (Agirre sasterria) 19:30ean eta 00:30ean, Aitor Gisasola, Ainhoa Za-

pata, Nagore Cid eta Maria Jesus Otaegik *Eduardo manostijeras* filmeko zati bat antzeztuko dute. San Frantzisko 11n (Anton altzari denda), Dani Zelaia Cooper, Gorka Fernandez eta Nagore Cid arituko dira 20:30ean eta 23:30ean, *Con la muerte en los talones* pelikulan oinarritutako antzeztanarekin. Kalebarren plazan, berriz, 21:30ean eta 22:30ean, Ibai Leon, Jon Olivares eta Sara Iriondo Otañok *Pretty woman* filmeko eszena eskainiko dute.

Antzezteko modu honekin ahalegin berezia egin nahi dute antzerkia kalera eramateko, eta erakusleihatara begirtzean, kalean dabilzanak, akzioa islatuko duten sekuentzia harrigarri eta bitxietara begira gera daitezten.



Aurreku eta soinu zahar txapelketako dantzariak Bakarlarrien jaialdia egingo dute ekainean

Apirilaren 21ean eta 22an jokatu zuten Elgoibarko XVII. Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa Herriko Antzokian. Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako zortzi ordezkari hartu zuten parte: Malen Galarraga, Sare Sainz, Jone Gil, Amaia Sasian, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Aimar Almortza eta Markel Goenaga. Maila ona eman zuten denek ligaxkako azken saioan. Finalak maiatzaren 12an eta 26an jokatu dituzte, eta Elgoibarko ordezkariak Jone Gil, Jon Etxeberria, Eneko Etxaniz, Aimar Almortza eta Markel Goenaga izango dira. Finalen ostean, txapelketako enseguetan aritzen diren Elgoibarko dantzariak, erakustaldia egingo dute *Bakarlarrien jaialdia* izenburupean, ekainaren 1ean, Kalegoen plazan, 19:00etan.



Gemma Monrealen erakusketa

Gemma Monreak eta bere 42 ikasleek *Caminando entre colores* erakusketa jarriko dute ikusgai apirilaren 27tik maiatzaren 12ra Elgoibarko Kultur Etxeko erakusketa aretoan. Inaugurazioa gaur, 19:00etan, egingo dute. Lanak astelehenetik zapatara eogngo dira ikusgai, 17:00etatik 20:00etara.

Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa

Maiatzaren 4an Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian, 20:00etan, Iñigo Zearsoloren zuzendaritzapean. *Sinfonia n. 9* Del nuevo mundo, *Orfeo de los infiernos*, *Coppelia*, *Pizzicato*, *The entertainer* eta *El último mohicano* piezak joko dituzte. Doan izango da.



Arg.: BigVK

Jose Gurrutxaga krosak antxitxika jarri zituen herritarrek

Jose Gurrutxaga krosaren 25. ekinaldian 715 lagunek, parte hartu zuten. Adinka eta sexuka banatutako hamahiru lasterketa izan ziren guztira. Lagun eta ezagunen animo artean aritu ziren saltaka herriko kaleetan, eta guztiek izan zuten saria, denei banatu baitzieten domina amaieran. Elgoibar Ikastolako arduradunek krosa antolatzen lagundu dieten guztiei eskerrak eman dizkiete eta baita parte hartzaile guztiei ere. Sailkapenak eta krosetako bideoa eta argazkiak www.barren.eus-en.



Gipuzkoako Futbol Federazioa sortu zuten lau taldeak omendu dituzte, tartean C.D. Elgoibar



Gipuzkoako Futbol Federazioak 100 urte bete ditu asteon eta kirolariak prestatzen egin duen lana aitortu dio Aldundiak, eguaztean eginiko omenaldian. Lau taldeak sortu zuten federazioa: Realak, Beasainek, Real Unionek eta C.D. Elgoibarrek. Hori dela-eta aitortza berezia jaso zuten lau taldeotako presidentek. Era berean, federazioak berak ere egin du mendeurrena ospatzeko ekitaldia. Gaur egun federazioa osatzen duten 113 taldeetako presidentek eta presidente ohiak omendu zituzten. Elgoibarko futbol taldeak 50 presidente izan ditu 100 urteko ibilbidean, eta horietatik 21 daude bizirik.

Bolari azkoitiarrak nagusitu ziren Idotorbeko tiraldian, baina Unai Loiolak jarraitzen du lider

Guztira 45 bolarik hartu zuten parte Idotorbeko botatokia jokatu zen Gipuzkoako 49. Hiru Txirlo Bola Joko Txapelketaren bosgarren jartzialdian. Beñat Astigarraga eta Gorka Etxaniz azkoitiarrek eskuratu zituzten lehen eta bigarren postuak, hurrenez hurren. Unai Loiola elgoibartarrak egin zuen hirugarren. Zazpi txirlo bota zituzten lehen hiru sailkatuek. Sailkapen nagusian San Migel taldeko Unai Loiolak jarraitzen du lidergoan, 24 txirlorekin. Gorka Etxaniz dago orain bigarren postuan, 21 txirlorekin, eta Xabier Loiola elgoibartarra dago sailkatuta hirugarren postuan, orain arteko bost jardunaldietan 19 txirlo botata.



Arilan eskubaloi taldeak Lauko Finala jokatuko du Etxebarrin



Tecnifuellek eta Decak moduan, Sanloko Arilan taldeak ere lortu du Lauko Finalerako sailkatzea. Euskal ligan diharduen kadeteen taldeak Kukullaga, Pulpo eta Zarautz izango ditu aurkari Etxebarrin jokatuko duten Lauko finalean, gaurtik domekara bitartean. Laukok, Sanloko senior nesken taldeak, ere jokatuko zuten igoera fasea, aurreko asteburuan, Donostiako Bidebieta kiroldegian. Elgoibartarrek 17-19 irabazi zioten Aiala Zarautzi finalerdietan, eta Bera-Bera taldearen aurka jokatuko zuten finala. Emozioz beteriko partida jokatuko zuten bi taldeek eta arauzko denbora 23nako berdinketaz amaitu zen. Luzapena jokatuta ere berdinketa hautsi ez zutenez, penalti jaurtiketetan erabaki behar izan zuten irabazlea. Eta, nola ez, penaltien lehen txanda ere berdinduta amaitu zuten. Sanlo izan zen huts egiten lehena, eta, honenbestez, donostiarrek jarraituko dute Zilarrezko Ohorezko Mailara igotzeko lehian.

Espeleologia proba izango da Debarrenako Raideko berritasun nagusia

Debarrenako Raid proba antolatuko du Morkaikoek ekainaren 2rako, eta zabalik dago izena emateko epea. Aurten ere, Abenturetako Raiden Iparraldeko Ligako proba puntugarria izango da. laz hasitako bidetik, "Familiar" izeneko modalitatean parte hartzeko aukera dute guraso eta seme-alabek.



Orientaziorako gaitasun apalekin ere egiteko moduko proba izango dela azaldu dute, eta familiak animatu dituzte parte hartzera. Nagusientzako raid proban, berriz, espeleologia proba bat izango da berritasun nagusientzako, hautazko proba izango bada ere. Koba barruan rappel bat edo beste egin beharko dute partaideek.

Elgoibartar dezente Aloñako Igoeran



Bederatzi elgoibartarrek hartu zuten parte aurreko domekan jokatuko zen Aloñako Igoera mendi lasterketan. Emakumezkoetan, lehen hamarren artean sailkatu ziren Mayi Mujika eta Ainhoa Lendinez. Zazpigarren egin zuen Mujikak (2.40.48) eta bederatzigarren Lendinezek (2.49.53). Gizonezkoetan 11. postuan sailkatu zuen Ander Barrenetxea (2.12.51) eta 17. postuan loritz Conde (2.17.31). Imanol Goñi eta Oihana Azkorbebeitia izan ziren azkarrenak probaren 14. edizioan.

Kirol Campusean izena emateko epea

Udal Kirol Patronatuak antolatzen dituen Kirol Campusean izena emateko epea maiatzaren 2an irekiko dute, eta ekainaren 1era arte egongo da zabalik. Interesa dutenek Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena. Ekainaren 25etik uztailearen 20ra, asteleheneetik barixakura, 9:30etik 12:30era, hainbat kirol (ur jolasak, atletismoa, BTT, orientazioa, futbola, eskubaloia, herri kirolak, frontoiko jolasak, mendizaletasuna, buzeroa, patinajea, e.a.) egiteko aukera izango dute 2007 eta 2011. urteen tartean (biak barne) jaiotako umeek. 2003-2006 urteen tartean jaiotako gazteek, berriz, Goi Mailako Kirol Udalekuan maila handiagoko kirola egiteko aukera izango dute. Olaizaga eta IMH kiroldegiak, Mintxeta, Ikastolako frontoia eta herriko beste hainbat gune erabiliko dituzte. Patronatuko bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 110 euro.

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan bakarrik. ☎ 631 655 390

Adinekoak zaintzen edo garbiketan egingo nuke lan. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ 626 407 923

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. ☎ 657 438 357

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. Orduka eta asteburuetan ere bai. ☎ 631 558 243

Adinekoak eta umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ 688 652 050

Tabernan zerbitzari lanetan edo sukaldako laguntzaile lanetan aritzeko prest. ☎ 632 983 756

Zerbitzari gisa lan egiteko prest. ☎ 687 940 566

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan aritzeko ere prest. ☎ 638 338 816

Adineko pertsonen zaintzan eta garbiketan lan egiteko prest. Orduka edo etxeko langile modura. ☎ 642 290 762

Adineko pertsonak zaintzeko prest, etxeko langile modura. ☎ 617 414 989

Elkarteen garbiketan edo adinekoak zaintzen, etxean zein ospitalean, lan egiteko prest. Esperientzia eta ikasketak dauzkot. ☎ 671 989 434

Adineko pertsonak zaintzeko eta garbiketarako prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ 646 821 678

Adineko pertsonak zaintzeko prest, baita etxeko langile moduan ere. Esperientzia handia. ☎ 602 193 095

Adineko pertsonak eta gaixoak ospitalean zaintzeko prest. Orduka eta etxeko langile gisa. ☎ 632 949 742

Lan bila nabil. Digitalizazioan esperientzia handia. ☎ 602 819 349

Garbiketan, zerbitzari, baserrian... lan egiteko prest. ☎ 602 072 969

Adineko pertsonak zaintzen, garbiketan edo tabernetan lan egiteko prest. Esperientzia handia. ☎ 686 077 316

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo etxeko langile gisa. ☎ 602 047 812

Garbiketa lanetan aritzeko zein adineko pertsonak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 685 724 861 / 943 748 899

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Bederatzi urtez egon naiz adineko bat zaintzen. Elisabet. ☎ 631 376 202

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Etxeko langile aritzeko gertu. ☎ 688 735 551

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen. ☎ 631 414 947

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen. ☎ 631 617 281

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako prest. ☎ 693 710 696

Adinekoak gauzez zaintzeko prest. ☎ 632 733 573

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketan lan egiteko prest. ☎ 636 517 025

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketan lan egiteko prest. ☎ 632 779 980

Adinekoak zaintzeko edo beste edozer lanetarako prest. ☎ 612 216 458

Adinekoak zaintzeko prest. Etxeko langile, baita asteburuetan ere. ☎ 612 518 050

Adinekoak zaintzeko prest asteburuetan. ☎ 603 503 689

Adinekoak zaintzeko prest orduka. ☎ 631 620 344

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduka zein etxeko langile moduan. ☎ 631 556 507 / 620 619 287

Adinekoak etxean zein ospitalean zaintzeko (esperientzia eta ikasketak daukat) eta elkarrekin garbitzeko prest. ☎ 602 161 496

Eskaintzak

Zerbitzaria behar da Mahats ardandegian lan egiteko. ☎ 646 936 092

Elgoibarko denda batean lanerako neska euskalduna behar da. Interesatuak bidali curriculumak helbide honetara: elgoibardenda@hotmail.com

ETXEBIZITZAK.....
Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 632 983 756

Elgoibarren, berehala sartzeko etxebizitza bila gabilta. Bikote arduratsua. ☎ 683 415 222

OSPAKIZUNAK.....
1963an jaio eta aurren 55 urte beteko dituzten elgoibartarren ospakizuna ekainaren 2an Sigman (luncha, bazkaria eta dantzaldia 55 euro/gaueko mokadutxoarekin 65 euro). Diru-sarrera maiatzaren 18rako Laboral Kutxan: ES70 3035 0007 25 0071134765

1959an jaiotako elgoibartarren ospakizuna ekainaren 9an Sigman. 13:00etan Tantakan luncha. Interesdunek 55 euro sartu maiatzaren 20a baino lehen Laboral Kutxan: 3035 0007 22 0071135234. Kontakurako: 639 760 959.

administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Ente de Promoción y Formación de Administradores Locales Empresariales



ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire komunitatean, atikoko etxebizitzako jabearena baino ez den terrazan jarrita dago eraikin guztirako balio duen antena. Jabe hau kexu da antena hor daukalako eta esan digu zerbitzu honen zorra ez dagoela jasota erregistro dokumentuetan. Beraz, eskatu du terrazatik kentzeko eta beste lekuren baten jartzeko.

Antena eraikin guztirako elementua da jabe guztientzako funtzioa betetzen duelako. Elementu komuna izanik gainontzeko etxe zein lokalekin jabekidetzan dago, beraz, ez da etxebizitza horren jabearena soilik.

Elementu hori eraikinaren dokumentazioan agertzen ez bada ere, horrek ez du esan nahi komuna ez denik, alderantziz, dokumentuan modu argian pribatutzat jotzen ez bada komuna izango da. Izan ere, elementu arkitektonikoek izaera komuna dute, horien pribatutasuna argi eta garbi adierazita ez badago. Hortaz, bere etxebizitzan bertakotu gabeko edozein elementuren izaera pribatua defendatzen duenak, frogatu egin beharko du.

Aholkua: Atikoaren jabeak onartu behar du antena kolektiboa ezinbestean bere atikoan jarri behar dela.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Urko**, gaur, 10 urte, mutil handi! Familiakoen eta bereziki anaia Kaieten partetik muxu handi bat.



Zorionak, **Unax**, bihar 10 urte beteko dituzulako. Muxu bat etxekoan eta batez ere Oierren eta Izeiaren partetik.



Zorionak, **Luken**, maiatzaren 6an 4 urte beteko dituzulako. Muxu asko Elgoibarko familiaren partetik.



Zorionak, **Aiur!** Gaur 10 urte bete dituzulako. Ondo pasa zure egunean. Muxu potolo bat, etxekoan partetik.



Zorionak, **Jon**, maiatzaren 3an 7 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiako guztion partetik.



Zorionak, **Amaia**, bihar 9 urte beteko dituzulako. Familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **aitxi-txa**. Etxeko danon partetik muxu haundi bat!



Zorionak, **Maider**, 9 urte bete dituzulako. Muxu handi bat aitaxo, amatxo eta Asierrren partetik. Maite zaitugu!



Zorionak, **bikote**, pasa den ostiralean eta datorren asteartean, 7 eta 4 urte beteko dituzulako. Jarraitu gure bizitzak alaitzen. Maite zaituztegu!



Zorionak, **Paula** eta **Julen**, zuen 8. eta 9. urtebetetzean. Etxeko guztien partetik.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopseindugi zerbitzua daukagu.
Datu ordua hartzeko.

Harategi itxiera

HARATEGIA - URDAITEGIA

Jarduerarekin jarraituko duen pertsona baten bila ari gara.

Tel.: 676 894 367

ATXUTXIANTXITXIKA

APIRILAK 29. igandea

11:30ean
kalegoen plazan

Rrko kaurrentzat
2-5 urte

ATXUTXIAMAIIKA

RPS 183V12

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

EGUZKITAKO
BETAURREKOETAN
AUKERA ZABALA.

19€ gehiagogatik
GRADUATU ITZAZU!

* Kontsultatu baldintzak

27 BARIXAKUA

17:30-19:00 Ludoteka ibiltaria. Sukal daritza, eskulanak eta jolasak. 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat. Antolatzailea: Ludoteka. Maalan.

20:30 Opera (aurrez grabatuta). *Macbeth*. Herriko Antzokian.

28 ZAPATUA

Nekazaritza eta abeltzaintza feria

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Atabal Danborrada Elkarrearen pintxo salmenta. Kalebarrenen.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plazan hasita.

12:00 Pizza tailerra haur eta gazteenzat. Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

29 DOMEKA

11:30 Atxutxiantxitxika. HH2- LH2 bitarteko umeentzat. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra. Kalegoen plazan.

30 ASTELEHENA

18:00-20:00 Emakumeen hausnarketarako saioa: *Complacer o con placer*. Gidaria: Loredi Salegi. Antolatzailea: Jabekuntza tailerrak. Doan. Kultur Etxean.

2 EGUAZTENA

18:30 Hitzaldia. Gaia: Pentsioak. Hitzlariak: Marian Beitalarrangoitia eta Mikel Olabarria. Antolatzailea: Bildu. Musika Eskolako auditoriumean.

4 BARIXAKUA

16:15-20:30 *Euskararen jatorriaren 12. Biltzarra: Euskara Europako ama hizkuntzan*. Hitzaldi irekia: Angus Hunck ikertzailea eta Bernat Mira topnimia aztertzailea. Elgoibarko Kultur Etxean.

18:30-20:30 Odol ateratzea. Elgoibarko Odol-Emileen Elkartean (Anbulatortegi ondoan).

20:00 Kontzertua: Debabarreneko Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Iñigo Zersolo. Antolatzailea: DBOS. Elgoibarko Herriko Antzokian.

5 ZAPATUA

12:00-15:00/19:00-21:00 Mendaroko VII Pintxo Txapelketa. Herriko tabernetan.

9:30-15-20:30 *Euskararen jatorriaren 12. Biltzarra: Euskara Europako ama hizkuntzan*. Biltzarra. Aubixan.

16:00-20:00 Goitibeherak egiteko tailerra. Kalegoen plazan.

18:00 Kale antzerkia: *Atsoak dantzan. Desagertutako emakumeak*. Mendaroko plazan.

19:30-23:30 *Zelukristaloideak* antzerkiak. Antolatzailea: Taupada Antzerki taldea. San Frantzisko kalea, 30 eta 11 eta Kalebarren plazan.

6 DOMEKA

12:00-15:00/19:00-21:00 Mendaroko VII Pintxo Txapelketa. Herriko tabernetan.

Arratsaldez Goitibeheren entrenamendua. Albitzuri industrialdeko aldaipan.

9 EGUAZTENA

18:00-20:00 Guraso formakuntza tailerra: *Bihotz-biriketako bizkortzea (BBB)*, Anbulatorioko Pediatria Zerbitzua. Antolatzaileak: Kalamua, EIGK, Haurreskolako gurasoak, Arreiturrekoak eta Ongizate Saila.

18:00 Digital manufacturing unibertsitate masterraren informazio saioa. IMHn.

11 BARIXAKUA

17:30 Kiribil barraskiloaren saioa. Lagunekin, umeekin eta gurasoekin jolasak eta dantza. Kalegoen plazan

19:30 Galiziako letren astearen inaugurazioa. Antolatzailea: Galiza Etxea. Maalan.

20:00-21:00 eta 23:00 Tsunami orkestra. Antolatzailea: Galiza Etxea. Maalan.

20:30 Aurrez grabatutako Balleta: *Centenario de Bernstein*. Elgoibarko Herriko Antzokian.



Gloria Arzalluz Eguia

2018ko apirilaren 20an hil zen, 92 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zinea (Herriko Antzokian)



'Loving Pablo'

28 Zapatua, 19:00/22:15
 29 Domeka, 19:00
 30 Astelehena, 21:30




'Sagu eta Pagu'

29 Domeka, 16:30



'Campeones'

18 Martitzena, 19:00
 4 Barixakua, 21:30
 5 Zapatua, 19:00/22:15
 6 Domeka, 19:00
 7 Astelehena, 21:30



'En cuerpo y alma'

(Ongarri Zine Kluba)
 3 Eguena, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

27 BARIKAKUA	28 ZAPATUA	29 DOMEKA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea
Egunez Etxeberria	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea
30 ASTELEHENA	1 MARTITZENA	2 EGUAZTENA
Egunez *Ibañez	Egunez *Ibañez	Egunez Etxeberria
Egunez Garitaonandia	Egunez *Ibañez	Egunez Etxeberria
3 EGUENA	4 BARIKAKUA	5 ZAPATUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Garitaonandia
Egunez Garitaonandia	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Yudego
9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKAKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez
Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez Barrenetxea

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
 La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410

PREFOSTA

Herri Urrats 2018

Maiatzak 13, Igandea

Herri Urrats 2018 Senperen

- ◆ Autobusa antolatuta dugu Iparraldeko ikastolei lagundu, egun zoragarri bat pasa eta gure euskaltasuna aldarrikatzeko.
- ◆ Irteera: 09:00 (sigmoido autobus-geltokia)
- ◆ Itzulera: 19:30
- ◆ Prezioa: 12 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 10 euro)
- ◆ Autobusean joateko izena Elgoibarko Izarran (Ubitarte 4, behea) eman behar da; azken eguna: maiatzak 10

Antolatzailea

Elkarrekin



Iñigo Lamelas

Jose Luis Azpillaga



Lainoen altzoan etorrita, neguko euri zaparrada sarriek jaurti dute gure inguruko mendietara, eta, erreka bihurtuta, maldan behera ekin dio urak bere bidaiari. Eta batek penaz egiten dio so errekastoko ur jostariari, nolako bidaia egingo duen imajinatuta. Hasierako erreka-zoko aratz, huntz-garo-goroldio gozo, hurriz-adar, gerizpe eder eta koloretako harrien ondoren, pinu-adar, sasi, ibaibide suntsitu eta itzalikgabeak aurkituko ditu, eta, beherago, plastiko eta zakar artean, isurkari arraroz nahasirik egingo du ibaian behera itsasoraino. Tamalgarria. Errespetua galdu diegu hurreko mendi eta errekei! Inguruko basoetara joan besterik ez dago ikusteko nola gero

eta hondatuago dauden gure mendi-bideak, errekek eta natura, oro har. Haizeteak direla, euriteak direla, gero eta zuhaitz gehiago ikusten dira mendian ipurdiz gora, inork kasurik egiten ez diela, bideak itxi eta mendian ibiltzea eragozten dutenak. Horrez gainera, ordea, pinuen gaitza dela eta, gero eta baso gehiago botatzen ari dira, zura guztiz hondatu aurretik pinuari etekina atera nahian, nonbait. Horretarako, kamioitzar eta traktore baldar ugari sartu eta, lehenaz gain, bideak, errekek eta putzuak triskatzen dituzte. Penagarria benetan! Natura maite dugula diogu, eta parke naturalak sortzen ditugu. Bapo! Baina, natur parkeetaraino joan beste erremediorik ez ote dugu izango, bada, mendi eta errekez gozatzeko?

“Natura maite dugula diogu, eta parke naturalak sortzen ditugu”



Informa zaitez: www.meka-elgoibar.net - 943 74 80 19 - bulegoa@meka-elgoibar.eus

ERDI MAILA

- Administrazio kudeaketa
- Makineriaren elektromekanika
- Ibilgailuen elektromekanika
- Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta
- Soldadura eta galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Karrozeria

GOI MAILA

- Administrazio eta finantzak
- Automozioa
- Haur-hezkuntza
- Metal eraikuntzak

Eta eskaintza partzialean, arratsaldean...

- Soldadura eta Galdaragintza
- Erizaintzaren laguntza
- Automozioa
- Gizarteratzea



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



Aurrematrikula maiatzaren 2tik 14ra



ATE IREKIAK
maiatzaren 3an
18:00etan



2018-2019

Batxilergorako aurrematrikulazioa:

Maiatzaren 2tik 14ra

BATXILERGOA (BH)

Giza eta
Gizarte
Zientziak

- Gizarte Zientziak
- Humanitateak

Zientziak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta Teknika

Artea

- Artistiko Musikala

ATE IREKIAK:

MAIATZAREN 2AN, 18:00ETAN,

INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)



943 748 397
013431aa@hezkuntza.net

